

Lasarte-Orian 2018. urtean merkataritzako, ostalaritzako edo zerbitzu pertsonaletako enpresa txikiak sortzen laguntzeko diru-laguntzak konkurrentzia libreko erregimenean emateko oinarri espezifikoa.

### 1. oinarria. Xedea eta aplikazio-eremua.

Oinarri hauen xedea da Lasarte-Orian kokatutako txikizkako merkataritzaren, ostalaritzaren edo zerbitzu pertsonalen arloko enpresa txikiak sortzen laguntzearen Lasarte-Oriako Udalak eman ahalko dituen laguntza ekonomikoen deialdia eta konkurrentzia libreko erregimenean kontzesioa arautzea.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

### 2. oinarria. Onuradunek bete beharreko baldintzak

Merkataritzako, ostalaritzako edo zerbitzu pertsonaletako enpresa berri batu sortu duten eta merkataritzako jarduera duten pertsona fisiko nahiz juridikoak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, betiere ondoko baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta Segurantza Sozialeko dagokion erregimenean hasierako alta ematea 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera.
2. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan jarduera berean edo antzekoan matrikulatuta egona ez izatea zeinetarako laguntza eskatzen duten enpresa sortu aurreko sei hilabeteetan.
3. Egoitza soziala eta fiskala Lasarte-Orian kokatutako lantoki batean izatea.
4. Lasarte-Orian establezimendu bat izatea, zona baimendunean sarbide publikoa duena eta aurkeztu beharreko Bideragarritasun Planean deskribatutako jarduera garatuko dena.
5. Enpresa berria kontzeptutik kanpo geratzen dira lehenagotik zegoen jarduera bat eskualdatzetik datozenak, baldin eta enpresaren titular berriak ahaidetasunezko erlazioren bat badu enpresa-jarduera eskualdatzen duen pertsonaren ezkontidearekin, ondorengoekin eta bigarren mailara arteko odolkidetasunezko edo ahaidetasunezko gainerako ahaideekin.
6. Mikroenpresa izateko baldintza betetzea, hau da, gehienez ere 10 pertsonari lan ematekoa.
7. Gorago adierazitako baldintzetakoren bat betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetza zuzena nahiz zeharkakoa ez izatea bertan.
8. Enpresaren jarduera nagusiak **Jarduera Ekonomikoen Kode Nazionaleko** ondoko talde hauetakoren baten barruan egon beharko du:

471. Txikizkako merkataritza espezializatu gabeko establezimenduetan

472. Elikagaien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza espezializatu gabeko establezimenduetan.

473. Automobilentzako erregaiaren txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan.

474. Informazioaren eta komunikazioen teknologietarako ekipamenduen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan.

475. Etxean erabiltzeko bestelako produktuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan

476. Kulturako eta aisialdiko produktuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan.

- 477. Bestelako produktuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta.
  - 551. Hotelak eta antzeko ostatalekuak.
  - 561. Jatetxeak eta janari-postuak.
  - 562. Ekitaldietarako janari prestatuen hornidura eta beste janari-zerbitzu batzuk.
  - 563. Edarien establezimenduak.
  - 651. Aseguruak.
  - 68. Jarduera inmobiliarioak.
  - 69. Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak.
  - 75. Albaitaritzako jarduerak.
  - 77. Alokairuko jarduerak.
  - 78. Enpleguarekin zerikusia duten jarduerak.
  - 79. Bidaia-agentzien jarduerak, turismo-operadoreenak, erreserba-zerbitzuenak eta horiekin zerikusia duten jarduerak.
  - 80. Segurtasuneko eta ikerketako jarduerak.
  - 81. Eraikinrentzako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak.
  - 85. Hezkuntza.
  - 86. Osasun-jarduerak.
  - 87. Egoitza-establezimenduetako asistentzia.
  - 88. Ostatalekurik gabeko zerbitzu sozialen jarduerak.
  - 95. Ordenagailuen, produktu pertsonalen eta etxean erabiltzeko produktuen konponketa.
  - 96. Bestelako zerbitzu pertsonalak.
9. Administrazio publikoen aurrean izaera tributarioko betebeharrak izanez gero, horiek egunean edukitzea, bai eta Segurantzaren Sozialarekiko betebeharrak ere.
  10. Bideragarritasun plan bat aurkeztea, *Beterri-Buruntza ekinean* eskualdeko ekintzaitza-zerbitzuaren onespina edo tutorizazio-proposamena izango duena, kontuan hartua izan dadin. Beharrezkoa balitz, bideragarritasun plana baloratu ondoren, diru-laguntza jaso ahal izateko baldintza ezinbestekoa izango da bere jarduera enpresarialaren tutorizazio teknikoan onartzeko konpromisoa hartzea. Tutorizazio hori eskualdeko *Beterri-Buruntza ekinean* ekintzaitza-zerbitzuak egingo du, Udaleko Sozioekonomia Departamentuak gidatua (edo, arrazoituta, eskatzaileak proposatzen duena). Tutorizazioak, gehienez ere, 6 hilabeteko iraupena izango du, laguntza ematen denetik zenbatzen hasita. Beharkizun hau betetzat joko da, baldin eta tutoreak uste badu jarraitzea ez dela beharrezkoa.
  11. Gastu korrontearen hasierako bolumen ekonomikoaren zerrenda aurkeztea, c)ataleko 10. oinarrian ezarritakoaren arabera.
  12. Enpresa eskaeragileek zehatz-mehatz bete beharko dute indarrean dagoen araudia, bai hirigintzari eta arkitekturari dagokiena, bai osasunaren eta higienearen arloari nahiz ingurumenari dagokiena eta aplikatzekoak zaizkien gainerakoak, kasua hala bada.

### 3. oinarria. Diruz laguntzekoak diren gastuak

Diruz lagun daitezkeen gastu arruntatzat joko dira enpresa martxan jartzeari, jardueraren funtzionamenduari eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman aurreko ordainketei berez dagozkienak, betiere jardueraren hasierari loturik badaude eta alta eman ondoko hurrengo 9 hilabeteetan egindakoak edo egiteko asmotan direnak badira eta horien faktura nahiz ezarritako epean pagatu izanaren konstantzia badago, hala nola

1. Enpresa eratzeko gastuak: irekitzeko lizentzia, jarduerako lizentzia, negozioa martxan jartzeko pagatu beharreko beste tasa batzuk, notariotzako eta erregistroko gastuak, baldin eta hobari osagarriak ez badute.
2. Errentamendu-gastuak (alokairuak). Zentzu honetan, bermeen deposituak ez du gastu izaerarik.
3. Segurantza Sozialeko langile autonomoen erregimen berezian kotizazioa pagatzeari dagozkion kuotak, baldin eta hobari edo laguntza osagarriak ez badute.
4. Lokala egokitzeko gastuak, kanpo geratuko direlarik altzarietan, makinerian edo ekipo tekniko nahiz informatikoetan egindako inbertsio-izaera dutenak.
5. Enplegatutako pertsonen kontratazio-gastuak. Nominak eta Segurantza Sozialeko kotizazioak.
6. Jarduera abian jartzeko eta kudeaketa administratiborako aholkularitzako eta gestoriako gastuak.

#### 4. oinarria. Diru-laguntzaren zenbatekoa

- a. Izaera orokorarekin: Diruz laguntzekoa den gastuaren %40koa izango da diru-laguntza. Establezimenduko emango den laguntza gehienez ere 1.500 eurokoa izango da.
- b. Izaera partikularrez, Eragin Komertzial Maximoko Eremuetan kokaturiko establezimenduentzat: establezimendu gutxien dagoen eta ostalaritza eta merkataritza arloko jarduera gutxien duten herriko eremu komertzialak bultzatu nahian, diru-laguntza izango da diruz laguntzekoa den gastuaren %60koa. Establezimenduko emango den laguntza gehienez ere 1.800 eurokoa izango da.

Laguntza modalitate hau eskatu ahal izango dute 2014ko Merkataritza Indarberitzeko Plan Berezian (PERCO) Eragin Komertzial Maximoko Eremutik kanpo definitutako establezimenduek. II. eranskinean dago Eragin Komertzial Maximoko Eremua osatzen duten herriko kaleen eta haien zenbakien zerrenda.

- c. Izaera partikularrez, erretiroagatik negozioa uzten duten pertsonak buru dituzten establezimenduen jarraipena ahalbidetzen duten establezimenduentzat: baldin eta eskatzailea eskuratutako edo erretiroagatik aurreko titularrak eskualdatutako establezimendu baten titularra bada, beti ere jarduerak jarraitzen badu, diruz laguntzekoa den gastuaren %60koa izango da diru-laguntza. Establezimenduko emango den laguntza gehienez ere 1.800 eurokoa izango da.
- d. Izaera partikularrez, desgaitasun onartua duten pertsona bat titular duten establezimenduentzat: Baldin eta eskatzailea establezimendu berriaren titularra bada eta gutxienez %33ko desgaitasun onartu bat badu, diruz laguntzekoa den gastuaren %60koa izango da diru-laguntza. Establezimenduko emango den laguntza gehienez ere 2.500 eurokoa izango da.
- e. Izaera partikularrez, titulartzat 55 urteko edo gehiagoko pertsona duten establezimenduentzat. Baldin eta eskatzailea establezimendu berriaren titularra bada eta 55 urtetik gorakoa, diruz laguntzekoa den gastuaren %60koa izango da diru-laguntza. Establezimenduko emango den laguntza gehienez ere 2.500 eurokoa izango da.

## 5. oinarria. Diru-laguntza kalkulatzeari

Dirulaguntzaren kopurua, gastu arrunterako hasierako bolumen ekonomikoaren arabera kalkulatu da, 10.oinarriko c) atalean zehaztua dagoena, eta proiektu eta eskatzaile bakoitzeko emango den gehienezko diru-laguntza ez delarik izango 4. artikuluan ezarritakoa baino handiagoa.

## 6. oinarria. Pagatzeko era.

Diru-laguntza hauen pagamendua honela egingo da:

- Diru-laguntzaren zenbateko osoaren %60, laguntza ematen den unean.
- Gainerako %40, laguntza ematen denetik 6 hilabetera, egiaztatu ondoren: Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoela, sortutako enpleguari eusten diola, eta hala badagokio, derrigorrezkoa den tutorizazio epea bete duela.

## 7. oinarria. Entitate onuradunen betebeharrak

- a) Estipulatutako tutorizazio teknikoaren epea bete beharko dute, baldin eta agindu bada.
- b) Honako egiaztapen-jarduketak hauek egitera behartuta daude: Udalarenak, Interbentzio Orokorrari dagozkion kontrol finantzarioarena keta Kontu Publikoen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoak, emandako diru-laguntzari dagokionez.
- c) Udalaren deialdi honetarako aurkeztutako gastu beretarako beste laguntzarik edo diru-laguntzarik jasoz gero, Udalari jakinaraztea.
- d) Diru-laguntza ematerakoan kontuan izandako edozein zirkunstantzia —objektibo nahiz subjektibo— aldatuz gero, Udalari aldatuta horren berri ematea.
- e) Laguntza-eskaera ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta/edo dokumentazio osagarri guztia ematea Lasarte-Oriako Udalari.

## 8. oinarria. Aurrekontuko zuzkidura

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak Udalaren 2018 urterako aurrekontutik finantzatzeko dira, "Transferentzia arruntak beste enpresa pribatuei" izeneko 1.0702.471.01.431.90 2018 kontu-sailaren kargura, 35.000 euroko zenbatekoarekin.

Jasotako eskaeren bolumena dela-eta beharrezkoa balitz, zenbateko hori handitu ahal izango da alde zuzenetatik aurrekontuetako kredituak aldatuta.

## 9. oinarria. Beste diru-laguntza batzuekiko bateraezintasuna

Programa honetan aurreikusitako laguntzak ezingo zaizkio diruz lagundutako gastu berengatik jasotako beste ezin laguntzari metatu.

## 10. oinarria. Nahitaezko agiriak

Diru-laguntzaren eskabideari honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

- a) Eskaera-orri espezifikoak: I-B eranskina
- b) Bideragarritasun Plana, *Beterri-Buruntza ekinean* eskualdeko ekintzaitza zerbitzuak erabiltzen duen eskemaren araberrakoa. Plan hau egiteko, pertsona ekintzaileak *Beterri-Buruntza ekinean* ekintzaitza zerbitzuaren arreta bermatua izango du.
- c) Justifikazio-faktura eta ordainagiria duten gastu ordainduen zerrenda. Kontuan izango dira Jarduera Ekonomikoaren Zergan alta eman aurretik egindako pagamenduak, baldin eta jardueraren hasierarekin zerikusia badute, eta alta eman ondoko lehenengo 9 hilabeteetan egindakoak. Ezinbestekoa da zerrenda hori, eta behar bezala datatua eta sinatua aurkeztuko da, dagozkion zutabeetan datu hauek sartuko direlarik:

1. Fakturaren edo gastu-frogagiriaren kontzeptua.

2. Fakturari edo gastu-frogagiriari esleitutako kodea.
3. Fakturretan, faktura-zenbakia.
4. Faktura jaulkitako data.
5. Hornitzailea edo hartzailea adieraztea.
6. Ordaindutako zenbatekoa (BEZarekin).
7. Ordainketa-data

Diru-laguntza eskaera aurkezterakoan, ez da beharrezkoa frogagiriak aurkeztea; espedientearen instrukzioa egitean, ausazko lagin bat eskatuko da.

Eskatzaileei, nahi badute, txantilo-eredu bat emango zaie, excell oinarrian egina, eta aurkeztu beharrekoen zerrenda editatzeko erabili ahal izango dute.

- d) Pertsona fisikoa bada: DNIren fotokopia
- e) Pertsona juridikoa bada: IFKren fotokopia, enpresa eratzeko eskriturak, ordezkatzeko ahalordeak, ordezkatzeko ahalordea duen pertsonaren DNia.
- f) Alokairua baldin bada, zehazki identifikatu beharko da lokalaren jabe den pertsona (OIZen ordainagiriaren bidez, esaterako).
- g) Gizarte Segurantzaren alta emandako dataren akreditazioa.
- h) Gizarte Segurantzako ordainketetan egunera dagoela dioen ziurtagiri eguneratua.
- i) Foru Ogasuneko ordainketetan egunera dagoela dioen ziurtagiri eguneratua.
- j) Segurantza Sozialari pagatu beharrekoetan egunera dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua bere izenean eskatzeko baimena.
- k) Ogasun Foralari pagatu beharrekoetan egunera dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua bere izenean eskatzeko baimena.
- l) Zinpeko aitortpena (III. Eranskina), honi buruz:
  - o Aurreko titulararekin ahaidetasunik ba ote duen, aurretiko jarduera baten eskualdatzeetan.
  - o Mikro enpresa bat izatearen baldintza betetzea.
  - o %25etik gorako loturarik edo partizipaziorik ez izatea 2 artikuluko betebeharrak bat betetzen ez duten enpresekin.

Ofizioz egiaztatuko da ea entitate eskatzaileak beteta dauzkan Lasarte-Oriako Udalarekiko obligazio tributarioak eta ea badauzkan irekitzeko eta obrako baimenak (beharrezkoak badira), bai halaber enpresa alta emanda dagoen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan.

## **11. oinarria. Eskabideak aurkeztea**

Eskabidea, nahitaezko agiriekin batera, Lasarte-Oriako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko da. Aplikatzekoa izango da 39/95 Lege urriaren 1ekoak 16.4 artikuluan ezarritakoa.

Interesatuak eskabidea aurkezteak oinarri hauen edukia onartzen dutela inplikatu du.

Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau GAO-n argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera hasiko da, eta zabalik egongo da 2018 urtean zehar, erabildarri dagoen kreditua agortu arte (35.000€), konkurrentzia libreko deialdia izanik. Kreditu erabilgarriaren bukatzea edo haren handitzea, GAOko iragarki bidez jakinaraziko da

**Amaierako lehen xedapena.**

Urtero dagozkion deialdiak onesteko eta publikatzeko betebeharra alde batera utzirik, oinarri espezifiko hauek indarrean jarraituko dute organo eskudunak aldatzen ez dituen bitartean

**Amaierako bigarren xedapena.**

Oinarri espezifiko hauetan aurreikusiak ez dauden gaietan, ondoko xedapenak aplikatuko dira:

- a) Lasarte-Oriako Udalak ezarritako diru-laguntzen programetarako oinarri orokorrak.
- b) Diru-laguntzen legea eta haren erregelamendua.